

Master Amaierako Lanen eskaintzari buruzko jarraibideak

Urtero, ikasturtearen amaieran (ekainean edo uztailean), Masterreko Batzorde Akademikoak hurrengo ikasturterako Master Amaierako Lanen (MAL) proposamenak eskatuko ditu. Jasotako proposamenak, aztertu eta balioztatu ondoren, webgunean argitaratuko dira (<http://go.ehu.eus/PropuestasTFM>), non ikasleek kontsultatu ahal izango dituzten. Proposamenak jasotzeko epea urriaren amaierara arte egongo da zabalik. Dena den, antolaketa egokia bermatzeko eta nolabaiteko oreka mantentzeko, eskaintako gehienezko MAL kopurua mugatuko da, gehienez Masterrean matrikulatutako ikasle kopuruaren bikoitza izanik.

Behar izanez gero, irizpide hauen arabera lehenetsiko dira proposamenak:

- Masterreko irakasleek proposatutako MALak.
- Masterrean matrikulatutako ikasleren batekin alde aurretik adostutako MALak.
- Enpresa edo erakunde laguntzaileek proposatutako MALak, zeinak egiteko diru-laguntza bati lotuta dauden.

MAL proposamenetan, haren zuzendaritza zehaztu beharko da. **Eranskinaren jarraibideei** jarraiki, honela ezarri ahal izango da:

- Zuzendari bat.
- Zuzendari bat eta tutore bat.
- Bi zuzendarikide.

Inor ezin izango da agertu bi MAL baino gehiagotan zuzendari edo zuzendarikide gisa ikasturte berean.

Ezarritako txantiloian egin beharko dira MAL proposamenak (jarraibide hauen amaieran dago txantilo hori), gehienez ere orrialde bakarrekoak, eta egin beharreko lanaren izenburua eta laburpena izan beharko dituzte, testuingurua, helburuak eta metodologia azalduz. Proposamena bidaltzean, jarduera hori egiteko laguntza ekonomikoren bati lotuta dagoen ere adieraziko da.

ERANSKINA. MALen zuzendaritza

MALek zuzendari bat edo bi izan ditzakete, edo zuzendari bat eta tutore bat. **Zuzendarietako batek, gutxienez, Material Berrien Masterreko irakaslea izan beharko du.**

Arau orokor gisa, Masterreko irakasle ez diren zuzendariak Batzorde Akademikoak ikasturte bakoitzean egiten duen eta Masterraren web orrian argitaratzen den *MALen Zuzendarien Zerrendan* sartuta egon beharko dute.

Zerrenda horretan ez badaude, MAL proposamenetan adierazitako zuzendariak seiurteko aitortua edo baliokidea (gutxienez sei urteko ikerketa eta bost argitalpen zientifiko aipagarri) egiaztatu beharko dute. Batzorde Akademikoak baloratuko dituzte MAL bat zuzentzea proposatzen dutenek eta ofizialki seiurtekorik ez dutenek aurkeztutako merezimenduak.

Ikasturte bakoitzean, Batzorde Akademikoak MALen zuzendarien zerrendan Masterreko irakasle guztiak sartuko ditu eta aurreko urtean egindako eta defendatutako MALen gainerako zuzendariak baita ere.

Kanpoko erakundeetan (enpresa edo zentro kolaboratzaileetan) egindako MALetan, erakundeko lanaren arduraduna doktorea bada eta aurretik ezarritako baldintzak betetzen baditu, MALaren zuzendari gisa agertu ahal izango da, Masterreko irakasleen artean zuzendarikide bat proposatzea beharrezkoa izanik. Bestela, masterreko irakasle batek zuzendari gisa jardun beharko du, eta enpresako arduradunak tutore gisa.

Jarraibide hauetan jasotzen ez diren kasuei buruz Batzorde Akademikoak erabakiko du, eta baita horien interpretazioaren inguruan zalantzak sortzen dituztenei buruz ere.



MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENAK 2024/25 IKASTURTEA

Material Berrien Unibertsitate arteko Masterra

Izenburua (ingeleza edo gaztelania):

Zuzendaria:

e-maila:

Zentroa (Unibertsitatea eta Saila edo kanpoko Zentroa):

Zuzendari kidea edo tutorea (egongo balitz. Ezabatu ez dagokiona):

e-maila:

Zentroa (Unibertsitatea eta Saila edo kanpoko Zentroa):

Ikaslea (adostutakoa balego):

Laburpena (ingeleza edo gaztelania):